



Akziodunen Batzarra

SDEIBAR





Amaia Gorostiza SD Eibarko Presidentea



Akziodun estimatua:

Zuregana jotzen dut SD Eibar taldearen Akziodunen Batzarraren bezperan gure Klubaren datu ekonomiko adierazgarrienak eta beste zenbait albiste interesgarri helarazteko.

Buletin honekin, alde batetik, Klubaren gaurkotasanari buruzko informazio erabilgarria eskaini nahi dizugu eta, beste alde batetik, kide zaren kolektiboarekiko duzun lotura mantentzea nahi dugu, hori baita gure erakundearen ardatzetako bat.

Dakizun moduan, urte honetako maiztzean Klubeko Presidentetza hartu nuen (bertako Kontseilaria naiz 2014. urtetik) ordura arte lan egiten zuen zuzendaritza-talde berarekin, aurreko Presidentea salbuetsita, dimisioa eman baitzuen.

Klubaren buruzagitza aurkeztu eta lehen agerralditik pertsonalismoarik gabeko lan-eredu baten alde azaldu naiz, Kontseilariari protagonismo gehiago emanez eta Eibarren ezaugarri diren nortasun-ikurrak bultzatuz: leialtasuna, diskrezioa, ahalegi-na eta ongi egindako lana.

Sei hilabete hauetan egindako lan gogor eta handiaren ondoren, Klubak helburu bikoitza erdietsi du, alde batetik, Lehen Mailan mantentzea eta, bestetik, aurtengo

denboraldiari modu bikainean ekitea. Gainera, Jose Luis Mendilibar berri-tu dugu eta taldearen ondarea indartu dugu iraupen luzeko fitxaketa garrantzitsuak eginez.

Alderdi ekonomikoari dagokionez, kontuetan 9 milioi euroko superabita dugu joan den denboralditik eta denboraldi honetarako 15 milioiko irabaziak izatea espero ditugu. Halaber, babesle garrantzitsuekin kontratuak berri-tu ditugu, esate baterako, Avia edo Puma etxeekin.

Arlo sozialean SD Eibar Fundazioaren jarduerak bultzatu ditugu, Eibarko gizarteak eman diguna itzultzeko xedez, asko baita. Horri dagokionez, oinarri-futbola bultzatu dugu, beteranoak Klubaren egituran txertatu ditugu beste talde bat bailitzan eta gure Prestakuntza Ikasgeletan jardue-ra akademiko eta enpresakoak sustatu ditugu, besteak beste.

Era berean, Eibarko kirol klubak diruz laguntzeko partida bat prestatu dugu eta tokiko hainbat Gobernu Kanpoko Erakunde-deren proiektuak babesten ditugu. Barnealdera begira, Euskara Plana jarri dugu abian eguneroko lan-jardueran eta abonatu edota akziodunekin ditugun harremanetan gure hizkuntzaren erabilera sustatzeko.

Ipuru berri-tu eta modernizatzeko gure irrikaren barnean, berriki Ekialdeko tribuna inauguratu dugu, aurreikusitako epea baino ia bi hilabete lehenago. Kirol Hiri baten eraikuntza da jorratzen ari garen beste proiektu garrantzitsu bat. Egun lur egokienak hautatzeko fasean gaude proiektu horretan.

Ikusten duzun moduan, proiektu askotan gaude nahasita, eta gure ahalegin handiena eskatuko dute datozen hilabeteetan. Horretarako gizatalde aparta dut alboan, hasi Kontseilarietik eta modu bizi nahiz koordinatuen eta profesionaltasun- eta eraginkortasun-maila handi batekin lan egiten duten bulegarietara. Gurearen moduko Klub apal bezain handi baten mailan dagoen lantaldea, non zuk, akziodunak, funtsezko eginkizuna betetzen duzun.

Aupa Eibar!!!



Akziodunen Batzarraren Gai-Zerrenda

Lehenengoa.

Presidente Andrearen txostena,
Sozietatearen egoerari buruzkoa.

Bigarrena.

Aztertu eta onartu, egoki bada,
Sozietatearen Urteko Kontuak,
emaitzaren aplikazioa eta kudeaketa
soziala, 2016ko ekainaren 30ean
amaitutako ekitaldiari buruzkoa.

Hirugarrena.

Aztertu eta onartu, egoki bada,
2016/2017 denboraldirako aurrekontua.

Laugarrena.

Sozietatearen kontu-ikuskaria izendatu.

Bosgarrena.

Eskariak eta galderak.

Seigarrena.

Ahalmenak eskuordetu.

Zazpigarrena.

Aurreko bilkurako akta irakurri eta,
egoki bada, onetsi.


Balantze ekonomikoa

	30.06.2016
	[en miles de €]
ACTIVO NO CORRIENTE	9.559
Inmovilizado intangible	8.241
Inmovilizado material	818
Inversiones financieras a largo plazo	500
ACTIVO CORRIENTE	13.479
Existencias	12
Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar	2.452
Inversiones en empresas del grupo y asociadas a c/p	3
Inversiones financieras a corto plazo	9.997
Periodificaciones a corto plazo	5
Efectivo y otros activos líquidos equivalentes	1.010
TOTAL ACTIVO	23.038
PATRIMONIO NETO	14.434
Fondos propios	13.768
Capital	2.802
Reservas	4.045
Resultado del ejercicio	6.921
Subvenciones, donaciones y legados recibidos	666
PASIVO NO CORRIENTE	215
Pasivos por impuesto diferido	215
PASIVO CORRIENTE	8.389
Deudas a corto plazo	712
Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar	7.214
Periodificaciones a corto plazo	463
TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO	23.038

Presupuesto a 30 de junio de 2017 [en miles de euros]

	Presupuesto	30.06.2016	Variación
	30.06.2017		presupuesto
			30.06.17
			vs. 30.06.16
Importe neto de la cifra de negocios	43.621	32.041	11.580
Ingresos deportivos	1.138	1.368	(230)
Ingresos por retransmisiones	39.365	27.315	12.050
Ingresos de comercialización y publicidad	3.118	3.358	(240)
Aprovisionamientos	(681)	(500)	(181)
Consumo de material deportivo	(141)	(137)	(4)
Otros consumos y gastos externos	(540)	(363)	(177)
Gastos de personal	(24.966)	(16.124)	(8.842)
Gasto de personal deportivo	(21.840)	(13.660)	(8.180)
Sueldos y salarios personal no deportivo	(2.666)	(2.149)	(517)
Cargas sociales personal no deportivo	(460)	(315)	(145)
Otros gastos de explotación	(7.227)	(5.659)	(1.568)
Servicios exteriores y tributos	(3.206)	(2.634)	(572)
Desplazamientos	(650)	(816)	166
Gastos de adquisición de jugadores	(1.515)	(771)	(744)
Otros gastos de gestión corriente	(1.856)	(1.438)	(418)
Amortización del inmovilizado	(983)	(747)	(237)
Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras	98	98	-
Deterioro y rtado. por enajenaciones del inmov.	5.250	-	5.250
RESULTADO DE EXPLOTACIÓN	15.112	9.109	6.002
Ingresos financieros	60	56	4
Gastos financieros	(5)	(71)	66
RESULTADO FINANCIERO	55	(15)	70
RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS	15.167	9.095	6.072

SD EIBAR FUNDAZIOA SUSTATUZ



Gure Kontseiluaren lehen tasunaren artean gure Fundazioa bultzatzea dago, duela bi urte berrabiatu zena eta azken hilabeteotan protagonismo berezia izan duena.

SD Eibar Fundazioak Klubaren oinarri-futbola koordinatu eta Erantzukizun Sozial Korporatiboko ekintza guztietan erantzuna emateaz gain, Ipuruia barnean prestakuntza-programa aitzindari bat ere bultzatzen du (EHU unibertsitatearekin eta Entrenatzaileen Elkar-goarekin lankidetzan).

Eibarko gizarteak asko eman digu sortu ginenetik eta eman digunaren zati bat itzuli nahi diogu. Horretarako, tokiko kirol klubekin eta Gobernu Kanpoko Erakundeekin lankidetzan dihardugu. Azken ekimenetako bat gure beteanoak Klubaren egituraren txertatzea izan da, beste talde bat bailitzan.

EKIALDEKO TRIBUNA BERRIA IA BI HILABETE LEHENAGO IREKI DA



Ipuruako Ekialdeko Tribuna berriak dagoeneko itxura dirdiratsu berria erakusten du. Lanak maiatzaren 9an hasi ziren eta harmaila azaroaren 19an jarri zen zerbitzuan oso-osorik, aurreikusitako epea baino ia bi hilabete lehenago.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lan honen finantzaketan parte hartu du, kostu osoaren % 10 emanez.

Harmaila berrian aurrekoan baino 800 eserleku gehiago daude. Horri esker, estadioaren edukiera 7.000 ikusletik gorakoa da.

Tribuna berriaren berritasunetako bat lurrazpiko parking baten eraikuntza da, solairu bakarrekoa eta 58 plaza dituen. Proiektuan, era berean, Klubaren Interpretazio Zentro eta Museoaren, denda ofizialaren eta zerbitzu-eremu berrien eraikuntza barneratzen da.

LEHEN MAILAN SENDOTZEKO ERRONKA



Munduko ligarik onenean hirugarren urtez jarraian ari gara gozatzen. Amets honekin gozatzen dugun bitartean, gogor egiten dugu lan denbora hori luzatu eta elitean sendotu ahal izateko. Joan den denboraldia gure historiako onena izan zen, kirol arloan. Lehen mailan mantentzea lortu genuen erraz eta egungo taldea eraikitzeko oinarritzat hartu dugun jokalaria-multzo bat eratu genuen, Jose Luis Mendilibar entrenatzailearen gidaritzapean, gure ereduari bikain txertatzen baita.

Eibar taldearen paradigma aldatu egin da eta taldea osatzeko gastua oinarritzat hartzetik inbertsiora pasa gara, iraupen luzeko fitxaketak eginez. Horrela, klubak egitura sendo bat osatu nahi du. Aldi berean, Kirol Zuzendaritza sendotu egin da alderdi guztietan eta giza baliabide eta baliabide tekniko gehiago ditu, besteak beste, jokalaria profesionalen jarraipena egin, harrobia sustatu, kirol medikuntza garatu eta elikadura bultzatzeko.

KIROL HIRIA, ILUSIOZKO PROIEKTUA ETA KLUBERAKO EZINBESTEKOA



Kirol Hiri bat eraikitzea da eskuartearen ditugun proiektuen artean ilusio gehien sortzen duenetako bat. Berezko azpiegitura bat izan nahi dugu, gure taldeen premiei erantzuteko gai izango dena, egun gure talde guztiek, Lehen Mailakoak izan ezik, entrenatzeko eta jokatzeko erabiltzen dituzten udal instalazioen baitan egon gabe.

Hastapen-fasean gaude, lur egokiak lokalizatuz, Kluberako beharrezkoa den proiektu bat gorpuzteko xedez, izan ere, etorkizuneko belaunaldientzako ondare gisa geratzeko den inbertsio bat egiteko moduan dago Kluba.

Zalantzarik gabe, aktibo bat izango da gure harrobiko taldeetarako berezko instalazio batzuk izatea, klubeko oinarri-futbolera ditugun helburuak betetzeko oso lagungarri izango dena eta egun erabiltzen ditugun udal kantxak librexeago uzteko ere lagungarri izango dena.

ARMAGINANAIZ

BADA BESTE MODU BAT ZURE KOLOREAK DEFENDATZEKO.

Ebarren zaleek ondotxo erakutsi dute koloreak sentitzen dituztela eta jarraitzaile leialak direla, bai momentu onetan bai txarretan. Orain, bat egin dezakezu bere zalegoaz inor baino harroago dagoen klubarekin; ARMAGINA izan zaitezke. Aparteko abantailak izango dituzu, eta taldeari handitzen lagunduko diozu.

EGIN ZAITEZ ARMAGINA



SDEIBAR

Peña ofizial bat nola sortu

www.sdeibar.com/eu/zaleak/penak-ofizialak